

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko irailak 23 · 1240 zenbakia

ELKARBIZITZAREN ALDE ANIZTASUNETIK ABIATUTA

EUKi
ASEGURUAK



AUTO ASEGURUA

MOTORRA EDO FURGONETA

... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA,
KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA,
ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKANTZA**

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKANTZARI BURUZ!**

Informazio gehiago: eukiseguros.com

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. SERVICIOS DE
REPARACION Y
MANTENIMIENTO

TRABAJAMOS EN
TODAS LAS
TENDENCIAS

E.I.T.

Info@ejkofabriz.com TEL. 943 80 18 80

AJT Surtosoma S.L.
Barrena, 6 - beheko esk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

HELAIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristalcrisacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitekto Zuhaitz

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
balta toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkiza 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 - ELGOIBAR -
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

ELEKTRIZITATEA

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITZAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Aziltain Industriadia, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

Tel. 667 54 89 16



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Xabier Zubizarretak domekan emango du azken meza San Andres parrokian eta Eibarren jaio baina Soraluzen bizi izan den Pedro Laskuraini emango dio lekukoa. "Dena dela, ez dut abitua eskegiko", diosku Xabik, apaiza izateari inoiz ez zaiolako lagatzen, eta hurbil izango dugula iradoki digu, urte hauetan zehar Eibarrekin



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eskerrak Gipuzkoako Ogasunari

Vending (makina automatikoak) enpresa txiki bateko sozioa naiz eta eskerrak eman nahi dizkiot, bihotz bihotzez, Gipuzkoako Ogasunari ticketBAI proiektua martxan jarzteagatik. Iruzzurrari aurre egiteko asmotan, gure makina bakoitza online eurekin kontaktuan egotea eskatu digute eta ateratzen den produktu bakoitzaren berri izatea zuzenezuzenean. Benetan eredugarri!! Sistema hori martxan jartzeak, gure kasuan, 30.000 euroko gastua izango du gutxi gorabehera eta, gainera, hilero 1.000 euro gehiago datuak online bidaltzeko.

Gipuzkoako Ogasunak, noski, gure ahalegin guzti hori ondo ulertu du eta laguntzak emango dizkigu, jakina. Oraindik oso garbi ez dagoen arren, 3.000 bat euro izango omen ditugu gastu guzti horiei aurre egin ahal izateko. Gipuzkoan zergak ordaintzearen abantailak!! Euren egoitzak Gipuzkoatik kanpo dituzten enpresek ez dute laguntzarik. Ez dute laguntzarik ez dutelako sistema hori martxan jarri beharrik. Horixe da Gipuzkoako Ogasunak enpresa txikiei laguntzeko egiten diharduena.

Gure lanbidean urtero inbertsio handiak egin beharra izaten dugu (handiak gure tamainako enpresatxo baten-tzat, jakina): diru mordo behar dugu makina berriak erosteko, poliki poliki zahartu egiten direlako edo hondatu. Produktu guztien prezioak gora doaz eta guretzat zaila da etengabe prezioak eguneratzen ibili beharra, bezeroa bera ere ez da eta konforme izaten. "Gastu extra" horrekin gurea bezalako enpresa asko desagertuko dira, beti ere enpresa handien onurarako, Gipuzkoan zergarik ordaintzen ez duten enpresa handiak direnean gainera. Horrexegatik, berriz diot: mila esker Gipuzkoako Ogasunari.

Eibarko vending enpresa bateko bazkidea

Astean esanak



Euskarazko Wikipediak indar handia du, oso itzultzaile automatiko sistema onak ditugu... Hizkuntza prozesamendu munduan adimen artifizialeko sistema handiena egin dute eta alemaniera ez dago eta euskara, ordea, bai. Horren arrazoi bat proiektu horren atzean Ixa taldeko jendea dagoela da. Euskara oso ondo kokatua dago, baina ezin gara erlaxatu: teknologiak garrantzi handia du eta mundu teknologikoan ez dagoen hizkuntzak etorkizun gutxi du.

JON ANDER CAMPOS, informatikaria

Hainbat borroka ildo jorratu ditugu, baina, kolektiboki, ez diogu horri eutsi. Kolektiboki erantzun behar zaio indarkeria obstetrikorekin egitura sistematikoari: itsu, mutu eta gor nahi gaituzte, subjektu pasibo. Guztiek, erditzeaz asko edo gutxi jakin, tratu berdina izatea nahiko nuke nik, errespetsuzkoa. Ikaragarria da kontatzen ez baduzu sortzen den zauria: barrurik jaten zaitu... Eragina du horrek; ez, soilik, zure haurrarekin izango duzun erlazioan, baita bikotekide-harremanean eta bestelako esparruetan ere. Horrelako esperientzien ondoren, emakumeak arlo sozialetik desagertzen dira maiz.

NAHIA ALKORTA, indarkeria obstetrikorekin biktima

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OJO EUKI! → Arreta eskatzeko esaldia. "Ojo eukixok horri, Anton". (Kontuz horrekin, Anton).

OKASIÑUA → Gertakaria, ezbeharra. "Okasiñua daukagu etxian: ama zaharra gaixotu jaku".

1966

Azpiri jostundegian beharrean

Oraindik ere Arragueta kalean dagoen Azpiri jostundegian Plazaolak egindako argazkia. Ezkerretik hasita, Maria Jesús Lasa eta Maite Etxebarria ageri dira, hirugarren emakume batekin batera, patroiairen marrazkiari jarraituta oihala mozten.



Farmaziak

BARIXAKUA 23
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 25
EGUNEZ Morgado (San Agutzin, 3)
ASTELEHENA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 27
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 28
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 29
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 30
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Luis Donate Armero**. 90 urte. 2022-09-16.
- **Amaia lejarreta Izundegi**. 65 urte. 2022-09-17.
- **Angel Rodriguez Castro**. 97 urte. 2022-09-18.

Jaiotakoak

- **Eria Ruiz Barroso**. 2022-09-15.



Eibarren ere astelehenero egiten dute protesta, 12:00etan Untzagan. SILBIA

Eskualde osoko pentsiodunak batuko dira Eibarren urriaren 1ean

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak gogotsu ekin dio ikasturte berriari eta, aurreneko kontzentrazioan iragarri bezala, urriaren 1ean pertsona nagusien nazioarteko eguna gogoratuko dela eta, mobilizazio bereziak antolatzen ari dira hiriburuetan eta beste herri batzuetan ere. Debabarrenerako manifestazioa, betiko martxan, Eibarren egingo da, Untzagatik abiatuta.

Honezkero urteak borrokan daramatzan Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak salatzen duenez, “gure pentsioetarako arriskurik hurbilena soldaten eta pentsioen erosteko ahalmena galtzean datza, aberastasunaren banaketa desberdinaren ondorioz. Prezioak esponenzialki igotzen diren bitartean, energiaren eta finantzarioen oligopolioak eta IBEX 35eko enpresek irabazien erreko-

Aurtengo abendurako 2022an galdutako erosteko ahalmena konpentsatzea eskatzen dute, %2,5 eta urte amaierako KPlaren arteko aldearen arabera

rrak hautsi dituzte. 2022ko lehen sei hilabetean bakarrik, 48.868 milioi euro”.

Inflazioak etenbarrik gora egiten duen honetan, pentsiodunentzak “ezinbestekoa” da “soldatek eta pentsioek galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea eta benetako KPlaren arabera birbalaratzea. Hori izan behar du oinarritzko osagaia erosketaren edozein saskitan”. Diotenez, gero eta gehiago dira duintasunez bizitzeko zailtasun handiak dituzten pentsionistak eta, bitartean “finantza sektoreak eta eskuinak” KPlaren pentsioen errebalorizazioa deslotzeko eta 2013ko erreformaren errebalorizazio irizpideetara itzultzeko eskatu dutela kexu dira: “2021eko pentsioen azken erreformaren errebalorizazioarekin, gure erosteko ahalmenaren %3 galdu genuen, eta, saihestu ez arren, 2022an beste %8 galduko dugu. Hori dela eta, aurtengo abendurako 2022an galdutako erosteko ahalmena konpentsatzea eskatzen dugu, %2,5 eta urte amaierako KPlaren arteko aldearen arabera”.

Horrekin batera, badauzkate beste eskaera batzuk ere; 2021eko erreformarekin ezabatutako konpentsazio-ordainsaria berreskuratzea eta pentsioak benetako KPlaren arabera handitzea; eta gutxieneko pentsioek 1.080 eurora arte handitzea, gutxienez.

Zaharren egoitzak

Aste honetan Untzagan egindako elkarretaratzean, bestalde, zaharren egoitzetan bizitzen ari den egoerari arreta berezia jarri nahi izan diote Eibarko Pentsionista Taldeko ordezkariak eta, bide batez Madrilen egingo den estatu mailako manifestazioari babesa eta elkartasuna adierazi.



San Kristobal kaleko 9. eta 23. zenbakien arteko zatia trafikoarentzat itxita

Ubitxa eta San Kristobal kaleak lotzen dituen igogailua jartzeko lanak direla eta, azken kale horren 9. eta 23. zenbakien arteko zatia itxita egongo da ibilgailuentzat 2023ko apirilaren 30era arte. Zirkulazioa Fray Martin Mallea kaletik desbideratuko da, eta, horretarako, kale horretako zirkulazioaren noranzkoa aldatuko da 2. eta 6. zenbakien artean. Horrela, San Kristobal auzoko irisgarritasuna hobetu nahi da, kaleen artean dagoen desnibel handiak eragiten dituen trabak saihestuz.



Debarreneko Esperientzia Eskolarako matrikulazioa urriaren 11n itxiko da

Debarreneko Esperientzia Eskolak matrikula egiteko epea zabalik dauka 2022-23 ikasturterako. Ikasten Elkartek antolatzen duen Debarreneko Esperientzia Eskola 55 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta bertan parte hartzea animatzen direnek formazioa eta partehartzea izango dituzte ardatz. Ikasturtea urriaren 18an hasiko da. Klaseak martitzen, eguazten eta eguen goizetan izango dira, Untzagako zentro sozialean. Izena eman nahi duenak

urriaren 11ra arteko tartea dauka eta, horretarako, Pegora herritarren arreta-zerbitzurako bulegora joan beharko da. Matrikula egiteko dagokion inprimakia osatu behar da eta, horrekin batera, nortasun-agiariaren neurriko argazkia, NAN-ren fotokopia eta 50 euroko ordainaren frogagiria entregatu behar dira.

Eskolari edo matrikulazioari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero 695 788 936 telefono zenbakira deitu daiteke.

B

ERBETAN



**Euskara
praktikatzeko**

B

GURASOAK ERBETAN



**Familia-giroa
euskalduntzeko**

B

ONGI ETORRI ERBETAN

**Kulturartekotasuna
eta euskara
bultzatzeko**



PROGRAMAK MARTXAN IZANGO DIRA LASTER eta doan!

943 200918 – INFORMAZIO GEHIAGO – www.etakitto.eus



Hogeita hamar kultur jarduera egingo dira abendura bitartean

Udalak kultur jardueren programa zabala antolatu du urtea amaitzeko geratzen den tarterako eta aste honetan egin du aurkezpena Errebal Plazan. Jon Iraola alkateak, Patxi Lejardi Kultura zinegotziak eta José Luis González Kultura teknikariak nabarmendu zuten, antolatutako jarduerak askotarikoak dira eta era guztietako publikoei zuzenduta daude. Horrelako ikuskizunak herrian dauden espazio ezberdinetan (Coliseo antzokian, Portalean, Errebal Plazan zein kalean) egingo dira.

Alkateak azpimarratu duenez, “Udalak, Kultura Sailaren bitartez, ahalegina egiten jarraitzen du herritarrei hainbat modalitate eta diziplinako programazioa eskaintzeko, eta, batez ere, adin guztietako publikoak kontuan hartzeko. Ez da nolanhiko erronka asteburuko kultur aukera

desberdinak eskaintzea eta, gainera, kalitatezkoak izatea, eta uste dut urteko azken hiruhilekorako aurkezten ditugun jarduerak oso maila onekoak direla. Kultura hiriko eremu guztietan protagonista izatea nahi dugu, eta espazioaren eta azpiegituren aldetik egokiak diren gune guztietara iristea”. Programatutako artean eskaintza zabala dago: antzerkia, dantza, zirkua eta musika, besteak beste.

Bestalde, Errebal Plazan ikusentzunezko ekipoak hobetzeko lanen lehen zatia amaitu dutela esan zuten, horri esker, musika emanaldiek ikusleari argiztapen eta aprobetxamendu hobea eskainiko dietela gehituta: “Era berean, elementu horiek soinua aztertzeko eta hobetzeko neurriak ezartzeko balioko dute”. Coliseorako, berriz, 3D filmak eskaini ahal izateko zine proiektore berria erosi dute.



Ekialdea Bai auzo elkartearen erakusketa Untzagako jubiletxean

No al paseo que nos entierra- Ekialdea Bai auzo elkarteak “Eibar berdezkuratu!” izeneko erakusketa prestatu du, Estaziño-Azita bitartean trenbidearen gainetik egin nahi den pasealekuaren proiektuarentzat beraien alternatiba zein den jendeari azaltzeko. Gaur arratsaldean zabalduko dute erakusketa, Untzagako jubilatuetan, eta domekara arte egongo da ikusteko moduan, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburuan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



Bizikletak konpontzeko tailer ibiltaria zapatuan

Foru Aldundiaren eskutik “Prest jarri zure bizikleta” izeneko jarduera egingo da bihar Untzagan (10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara). Bizikleten oinarriko konponketak eta dekorazioa (pintura, pegatinak...) lantzeko aukera egongo da.



Aldaketa klimatikoaren inguruko kontzientziak piztuko ditu Asteklimak

Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez eta Ihobe-ren lankidetzarekin, hainbat jarduerak burutuko ditu irailaren 25etik 29ra bitartean, Euskadiko Klima eta Energiaren Asteklimaren barruan. Dimekan hasiko dira: Eibarko Baso Biziak elkarteak antolatuta, ginkana bat egingo da naturan altxorra bilatzeko. Familiei zuzenduta dago. Bertan, Urko mendi magalean 7,5 kilometroko ibilbidea eginez, eta hainbat pista bilatuz, haurrek inguruko ezaugarri naturalak ezagutu ahal izango dituzte.

Untzagako harmailetatik abiatuko dira, 09:00etan. Plazak mugatuak direnez, aurretik izena eman beharra dago. Martitzenean, berriz, “La energía del futuro y el cambio climático” hitzaldia emango du German Albistegui Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolako irakasleak, 18:00etan Portalean. Eguaztenean 18:00etan, herritarren partaidetzako tailerra egingo da Portalean eta eguean, 18:00etan, “Niararen bidaia” umeendako antzezlan eskainiko dute Coliseon.

Gudari Eguna gogoratuko du Sortuk martitzenean

Gudari Egunaren harira Sortuk ekitaldia antolatu du martitzenerako, 19:00etan, Eibarko Gudariaren plazan (Toribio Etxebarria, 29). Diotenez, “iraganeko memoria, gaurko borroka eta biharko garaipena aldarrikatzeko ekitaldia” izango da eta “Nehork ez dio eguri itxaropena kenduko” goiburuari jarraituko dio.



AUTUAN

71 URTE DITUZTENEN JAIA

1951n jaiotakoek azaroaren 19an ospatuko dute beraien jaia. Untzagan elkartuko dira, 13:00ean, argazkia egin eta zapiak banatzeke. Ondoren, piskolabisa izango dute O'jays tabernan eta handik Unzaga Plaza hotelera joango dira, bazkaltzera. Parte hartu nahi duenak 80 euro sartu beharko ditu Kutxabanken, ES40 2095 5035 01 9121623421 kontu zenbakian (azken eguna, urriak 30), izen-abizenak argi azalduta.



1966. URTEKOEN KINTADA

Urriaren 22an ospatuko dute beraien jaia urte horretan jaiotakoek. Untzagan batuko dira, 12:30ean, zapia jarri eta argazkia egiteko. Hortik aurrera egun osorako plana prestatu dute: luntxa Koskor tabernan (13:15), bazkaria Ipur sagardotegian (15:00), DJ saioa, poteoa Kontenten (19:30), luntzafaria Punto y Aparten eta dantza, asperutu arte. Izena emateko 86 euro sartu behar dira Caixabanken, ES76 2100 4168 74 2200135668 kontu zenbakian, izena eta bi abizenak ipinita (azken eguna, urriak 14).

65 URTE DITUZTENEN JAIA

Urriaren 22an ospatuko dute 1957an jaiotakoek beraien jaia. Izena emateko 90 euro sartu behar dira Laboral Kutxan, ES 72 3035 0235 2023 5103 8831 kontu zenbakian, izen-abizenak emanda (urriaren 8rako). Hau da plana: 13:00ean argazkia atera, 13:30ean piskolabisa Kontenten, 14:45ean bazkaria Casinon, 17:00etan guatekea eta 19:30ean amaiera.



Aurten ere ederto ibili dira Untzagako jubilatuen etxeak antolatutako UdaJubiLekuetara parte hartzera animatu diren guztiak. Pandemiaren aurretik egin ziren beste bi edizioetan bezala, oraingoan ere San Asensiora (Errioxa) joan dira eta hamaika gauza egin dituzte han pasatu dituzten egunetan: irteera kulturalak, jolasak, barreterapia... hori dena paraje zoragarri batean, gainera. Eta, bueltan, Ipuuara joan ziren Eibar foball taldea animatzera. Plan biribila, beraz!

Udalekuak jubilatuentzat ere badira





Barrenkale eta Arraindegikale kaleak suntsituta, bonbardaketa eta gero (1937). INDALECIO OJANGUREN

Arraindegi kalea nolakoa zen. Iturria, okindegia, tailerrak, Kalixtoren arotzeria, bainuetxea... Potxotxaneko labaderoa eta beste okindegi bat. Taberna. Barrenkalean, sastreria. Parean, eliza eta parkea.

Arraindegi kalean jaioa

Emilia Unamuno Zamakola
(1915 – 2009)



Oso gazterik joan zen Calbetón kalera bizitzera, baina Arraindegi kaleko sentitzen zen. Gerrak eraman zuen Arraindegi kalea eta, elkarrizketa egiteko unean (2008ko urtarrila) Emilia zen kale horretan jaiotakoan artean edadetuena. Aita Sorraluzekoa zuen, baina gazterik etorritakoa Eibarrera; ama oso gazterik hil zitzaion. Eskolara udaletxera joan zen doña Petrarekin, baina denbora gutxian: ez zitzaion gustatzen eta etxean lan asko izaten zuen egiteko (amaren faltan). Familia guztia sozialista zen; anaia nagusiek 1934ko matxinadan hartu zuten parte. Senarra gerran zauritu zuten.

Emilia Unamunori grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Arraindegi kalia Calbetoitik sartzen zan, Tanborroneko itturixia esaten jakon, akaso ezagutuko zenduen zeuek be, itturri bat Otxandion aurrian... tunelpe bat. Handik tunelpetik sartzen zan, ta panaderixa bat eguan, kunbo batekin [Hori Birjiñapian?] Birjiñapian. Ta gero taillarra, etxe haundi bat eguan, ta taillarra, bi eguazen taillarrak, taillar bi. Gero, Arraindikalera bazindoiazen, Paulomatxineneko tenplia eguan, eguan arotzerixia, Kalixtonekua, eguan beste panaderixa bat, gero Anituanekuak bizi ziran etxe bat, gero baiñuetxia. Gero, eskillara batzuekin errekoa ta Uganeneko panaderixia. Ta, gero, gu bizi giñan etxia. Gero, atzera eguan beste paso estutxo bat, Potxotxaneko labaderoa esaten jakon eta han zan Ukatxegiñeko panaderixia. Gero Salgadonekuak, tabernia, ta urtetzen zan Barrenkalera.

“Eibarrera datozenen ezagutzak kalera ateratzea eta elkarbizitza sustatzea nahiko genuke”

AITZIBER SALAZAR ARRESTI • Immigrazio teknikaria



Uztailaz geroztik immigrazio teknikari berria dugu herrian: Aitziber Salazar Arresti. Xabier Andresen tokia hartu du eta irailean ohiko martxa hartu ondoren, gogotsu hasi du bidea, gauza asko egiteko gogoz. Horrela, atzeritik Eibarrera datozenei laguntzeaz gain, elkarbizitza egokirako bideak lantzeko nahia du teknikariak.

Joan den urteko datuen arabera, beste herrialde batzuetatik etorri diren 2.734 lagun bizi dira Eibarren. 75 herrialde ezberdinetatik etorri diren eibartarrak dira eta, beraz, Eibar herri kosmopolita dela esan daiteke. Azken bi hamarkadetan herrian eman den migrazio fenomenoak jarraitu egingo duela dirudi eta, errealitate horri aurre egiteko, herriko eragileen elkarlana ezinbestekoa dela deritzo Aitziber Salazarrek.

Uztailean hartu zenuen kargua. Nolakoak izan dira lehenengo bi hilabeteak?

Ez da sasoi erraza izan, udako oporren ondorioz herriko elkarteek eta erakundeek etena egin dutelako euren jardunean. Beraz, abuztu amaieran hasi nintzen eurekin harremana izaten. Ordura arte, nire proposamena prestatzen ibili naiz, egin nahi ditudan gauzak zehazten, eta arlo politikotik oniritzia jaso dut. Egin beharrekoa ezagutzeko eta neure burua kokatzeko ere aprobetxatu dut denbora, eta, orain bai, martxa betean nabil. Atzo, adibidez, ‘Migrazioa ez da delitua. Bizitzak salbatzea ez da delitua’ izeneko mahai-ingurua izan genuen Portalean, urrirako beste ekintza bat antolatzen dihardut eta azarotik aurrera programazio bat izango dugu.

Proposamena egin duzula aipatu duzu. Nolakoak da?

Lehen, Gizartekintzako immigrazioaren inguruko zerbitzuak ematen zuen arreta bat non pertsonei tramiteak egiten zitzaizkien. Orain, aholkularitza ematen jarraituko dugu, baina ez da tramitazioa egiten. Beraz, alde batetik, jendea ahalduntzeko ideia dugu. Azken neurrian, hona etortzen diren etorkinek laguntza behar dute, baina ahaldundu egin behar ditugu euren bidea nola egin jakin dezaten. Horretarako, hemendik urte amaierara arte bi saio egingo ditugu nazionalitatea eta bestelako paperak lortzeko behar dituzten bitartekoak nola lortu ahal dituzten jakin dezaten. Biltzen elkartekoak etorriko dira hori guztia azaltzera. Eta bestalde, etorkinak administrazio elektronikoari dagokion kontuetan ahaldundu nahi ditugu. Hasieran, ordezkari baten bitartez aurrez aurreko zerbitzura jo behar izaten dute tramiteak egiteko, baina AIZ txartela lortzen dutenean administrazio elektronikoa erabili dezakete eta ikastaro horren bitartez euren egunerokoan lagungarriak izan daitezkeen tresnak eskaini nahi dizkiegu.

Jarduera horiez gain, baduzu pentsatuta beste zer-bait egitea?

Immigrazioarekin zerikusia duten jarduerak ekarri nahi ditugu herrira berriro. Ideia batzuk ditut,





“Agian Eibarren eta Euskal Herrian oraindik ez, baina beste toki batzuetatik datozen oihuak ez dira onak”

“Immigrazioarekin zerikusia duten jarduerak ekarri nahi ditugu herrira berriro”

baina herriko erakunde eta elkarteekin osatu nahi ditut. Eurekin bilerak edukitzen dihardut eta programa bat osatzea da asmoa. Adibidez, Eibarren Kulturarteko Jardunaldiak egiteko ohitura egon da, baina lanpostuan nahiko berandu sartu naizenez, ezin izango ditugu aurten egin. Dena dela, horren ordez, abenduaren 18an Migratzaileen Nazioarteko Eguna aprobetxatuz, zenbait ekintza egingo ditugu. Horrez gain, asmo gehiago ditugu esku artean. Batetik, Bizilagunak ekimena egingo dugu azaroaren 20an. Eragileek pozik hartu dute guk bertan parte hartzea, hasieran ez zegoelako programatuta. Eta bestetik, klima aldaketa, gatazkak eta migrazioa zeinen lotuta dauden landu nahi dut ekimen baten bitartez, gai horren inguruan esperientzia asko batu baitut azken urteotan. Bakearen eta gatazken inguruko ikasketak egin nituen Suedian, eta urteak daramatzat nazioarteko harremanen inguruan eta ingurugiro gaietan lanean.

Garrantzitsua da horrelako ekintzak egitea?

Zerbitzu honek Eibarko herritar guztxi eta atzerriatik datozenei lagundu behar die, eta horrelako ekintzen bitartez kalean erakusten dugu guztxiok eibartarrak garela eta, nahiz eta kulturalki tradizio edo ohitura ezberdinak izan, guztxiok elkarrekin bizitzeko eta el-

karrengandik ikasteko aukera dugula. Horregatik, martxan zeuden zenbait programa berreskuratu nahi ditugu 2023an. Adibidez, Eibarren Bizi programa, kanpotik datozenentzat garrantzitsua delako Eibar eta Euskal Herria nolakoak diren jakitea eta gure hizkuntza ezagutzea. Zentzu horretan, berebizikoa izango da Udaleko Euskara Sailarekin eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlana sustatzea.

Klima aldaketaren eta migrazioaren arteko lotura aipatu duzu. Fenomeno hori igartzen ari gara hemen dagoeneko?

Fenomeno hori gertatzen ari da eta hemendik aurrera gehiago ikusiko dugu. Begira nolako uda izan dugun hemen. Ez dugu horregatik migratuko, baina horrela jarraitzen badugu, jendea mugitu egin beharko da. Adibidez, turismoan ikusi da aldaketa. Lehen, estatu mailan, jendeak hegoaldera jotzen zuen oporretan, baina aurten oso tenperatura altuak egon dira eta jendea Euskal Herrira eta antzeko tokietara etorri da. Beraz, begirada altxatu eta munduari begiratzen badiogu, etorkizun hurbilean klima aldaketak migrazioan eragina izango duela ikusiko dugu. Ikasketak egiten hasi nintzenean gai honi buruzko lehen ikerketak egiten hasi ziren, baina gaur egun garrantzia handia hartu duen gaia da. Horrela, gai hau lantzeko



Immigrazio teknikariak zenbait jarduera berreskuratu nahi ditu eibartarron bizikidetzaz sustatzeko.

orduan ondo legoke Udaleko Ingurumen Sailekoekin elkarlana egitea.

Elkarlana berba zenbaitetan aipatu duzu. Berebizikoa da immigrazioaren gaia lantzeko?

Batzuetan ez dugu ikusten, baina Udaleko sail askorekin elkarlana egin dezakegu, immigrazioaren barruan gai ezberdin asko lantzen direlako. Asmo asko ditugu eta ikusiko dugu zer egin daitekeen, baina aukerak ikusten joango gara eta, bestetik, jendeak jakin dezala hemen gaudela. Txipa aldatu nahi dugu immigrazio zerbitzuari dagokionez. Etorkinei laguntza eskaintzen jarraituko dugu (aholkularitza eta abar), baina Eibarrera bizitzera datozenen ezagutzak kalera ateratzea eta elkarbizitza sustatzea ere nahiko genuke.

Nolako ekintzak egin daitezke ezagutzak kalera atera eta elkarbizitza sustatzeko?

Besteak beste, kultura ezberdinen arteko egunak antolatu daitezke. Adibidez, jendeak Ramadana zer den jakin dezake, baina herrian baditugu nepaldarrak ere eta budismoaren inguruko gauzak erakutsi ahal ditugu. Ez da erlijio kontua bakarrik, baizik eta nola bizi dituzten kontu horiek. Singapurren bizi izan nintzen urtebetez eta konturatu nintzen gure gizartearen jaiez aparte ez nekiela ia ezer beste kultura eta ohituren inguruan. Han hiru kultura dira

nagusi (txinatarrak-budistak, indiarrak-hinduak eta malasiarrak-musulmanak) eta bakoitzaren inguruan jaiegun bat zegoen, kultura eta erlijio bakoitza hobeto ezagutarazteko. Antzeko zerbait antolatzea gustatuko litzaidake hemen. Izan ere, ohitura, erlijio eta kultura ezberdineko jendea bizi da Eibarren, hori da daukagun errealitatea, eta nola funtzionatzen duten ezagutzea eta ulertzea lagungarria izan daiteke elkarbizitzeko.

Immigrazioari dagokionez, Eibarrek nolako ezauzgarriak ditu?

Jatorriari dagokionez, magrebtarrak dira nagusi eta, gero, latinoamerikarrak. Hala ere, herrialde ezberdin askotatik datoz (75etik gora) eta horrek aniztasuna ematen dio Eibarri. Lortu behar duguna da jende hau ez egotea etxean sartuta, baizik eta integratzea eta gure bizilagunak bilakatzea bizitzaren arlo guztietan. Era berean, nahiz eta jaioterria beste nonbait izan, oso eibartarra sentitzen den jendea aurkitu dut. Bizilagunekin harremana edukitzeko gogoia dute, nahiz eta badakiten batzuetan arazoak daudela. Agian Eibarren eta Euskal Herrian oraindik ez, baina beste toki batzuetatik datozen oihukak ez dira onak. Beraz, ezberdinak ez garela erakutsi behar dugu; berdinak garela, baina anitzagoak.



Tomas Vouilloz

Etsai berriak asmatzen

Ez dut nire etsai propioetaz hitz egin nahi. Hauek dezente aspergarriak dira: aurreiritziak, alferkeria, egoismoa eta horrelakoak. Asko esan daiteke beraien inguruan, bai, baina ez da gaur kezkatzen didan gaia. Gaurkoan, gizartearen eta taldeen etsaien inguruan pare bat hausnarketa ekarriko ditut.

Lehen Hezkuntzako 4A versus 4B; Eibar Eskubaloia versus Elgoibar; Athletic versus Real; Euskal Herria versus Espainia; ezkerria versus eskuma; ezkerria versus ezkerria; eskuma versus eskuma; iritzi publikoa versus publizitate handia jasotzen ari den edozein kriminal... Zure adibideekin jarrai dezakezu.

Ez da 4A-ko Ander 4B-ko Jonen kontra dagoela, seguruenik beraien artean ez dela ezer gertatzen, baizik eta talde bezala aurrez aurre daudela. Bitxia bada ere, adibideetako etsaiak geroz eta eztabidaezinagoak dira, talde zabalagoak inplikatzeko dituzten neurrian.

Taldeek pertenezia sentimendua sortzen dute. Ikertu da zenbat eta pertenezia maila handiagoa izan, taldea orduan eta itxiagoa dela. Honek esan nahi du geroz eta neurri handiagoan oinarrituko dutela beraien harremana taldekoak ez diren besteekiko ezberdintzen dizkieten gauzetan. Arropa, hitzegiteko gaiak, planak... Ez da oso desberdinak garelako berez, baizik eta gure taldekoagoak izateko, besteengandik gehiago ezberdintzen garelako, edo gure arreta gehiago bideratzen dela desberdintzen gaituzten gauza horietara.

Pertenezia handiagoa badago talde itxietan, eta talde itxiek besteengandik desberdintzeko joera handiagoa badute, suerta daiteke pertenezia sentimenduen iturria ez izatea soilik taldekoekin ditugun gauza berdina baizik eta besteekiko ezberdintasunak. Hona hemen etsaia.

Neurri ezberdinetan gertatzen da hau eta, uneren batetan, talde guztietan, esango nuke.

Etsai bat, desberdintasunak, paregabeak dira talde bat antolatzeke eta talde askok dute beraien etsaietan bere funtsa. Zer gertatuko litzateke, ordea, etsaia desagertuko balitz? Zer gertatuko litzateke, bapatean, talde guztiak Athletic izango balira? Nora joango dira gure amorrutako frustrazio guztiak? Batek daki haietaz jabetuko ginen behingoz, edo Athletic A versus Athletic B ikustera joango ginen, eta jarraitu dezala bizitzak.

"Ikertu da zenbat eta pertenezia maila handiagoa izan, taldea orduan eta itxiagoa dela"



Sagardo Egunaren XXVII. edizioa ospatuko dugu urriaren 1ean

Pandemiaren ondorioz azkeneko bi urteetan egin izan gabe egon eta gero, berriro itzuliko da Eibarrera Sagardo Eguna...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. XXVII. edizioa indartsu etorriko zaigu gainera; herriaren oso estimatua den ekintza da eta, bi urteko etenaren ondoren, herriarrak gogotsu daude Eibarko Sagardo Eguneko sagardoa dastatzeko. Hitzordua urriaren 1ean dugu, eta, eguerdiko 12:00etan hasita, egun osoko jaia hartuko du Untzagak.

Sagardoa zerbitzeko prest egonez gero, arduradunekin kontaktuan jar zaitezke (943200918 telefono zenbakira deituta)

Eguaztenean egin zen aurkezpena
Txotx eginez ekingo zaio Sagardo Egunari eguerdiko 12:00etan puntuan. Horrekin batera, eta azkeneko edizioak izan zuen berritasunari jarraituz, “omenaldia egingo zaio euskararen alde horren lan handia egin duen eta egiten diharduen Leire Narbaizari. Euskara-irakasle, euskalgintzako militante, hainbat hedabidetako kolaboratzaile, tartean...eta kitto! astekarikoa, egindako guztia eskertu eta errekonozituko zaio Sagardo Egunaren hasieran”, nabarmendu zuten antolatzaileek aurkezpenean. Marisol Arrillagak eta trikitilariak eta KIMUko txalpartariak girotuko dute goiza musikarekin, eta sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu nahi duenak dolarea izango du ikusgai.

Gipuzkoako 13 sagardotegitako eskaintza

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak ekarriko du sagardoa, hamahiru sagardotegitak: Alorrenea, Altzue-

ta, Astarbe, Barkaiztegi, Begiristain, Bereziartua, Gartziategi, Gaztañaga, Izeta, Lizeaga, Olaizola, Sarasola eta Zelaia. Sagardoa dastatzeko moduan ez da aldaketarik egongo: “Zortzi euroko tiketa erositako nahi beste sagardo probatzeko edalontzia, zapia eta pintxoak hartzeko aukera izango dugu; txorizo- edo gazta-pintxoak bera bakarrik bi eurotan salduko da”.

Luxuzko asteburuaren zozketa

Aurtengo edizioak badu berritasunik; izan ere, urriaren 1ean bertan iluntzean, luxuzko asteburuaren zozketatuko du...eta kitto!-k. Eguntan, eta Sagardo Egunean bertan, rifak egongo dira salgai, euro baten, eta zozketatuko den saria hau izango da: urriaren 22-23ko asteburuaren Bilbon. 22an afaria El Viejo Zortzi jatetxean; gaua eta gosaria Carlton hotelean eta 23an bazkaria Bistró Guggenheim Bilbo jatetxean. “Eskerrak eman nahi dizkiogu Industrias Pampori zozketa egiteko eman digun laguntasunagatik”.

Lantalde handia

Ohituta gaude Sagardo Egunean Untzaga plaza beteta ikustera, ehundaka lagun erakartzen baititu egun horrek. “Baina barraren bestaldean ezeze, barruan ere jende ugari behar izaten dugu dena behar den moduan antolatzeko, eta lantalde izugarria izaten du Sagardo Egunak atzean: bazkideak, lagunak, etxeokak... Berbarik ez dugu eskaintzen diguten laguntza handi hori eskertzeko. Ziur asko...eta kitto!-k antolatzen dituen ekintzen artean hau izango da lantalde handiena elkartzen duena”. Eta hitz horiekin batera gonbidapena, “eibartarrak eta inguruko herritarrek animatu nahi ditugu, etor daitezela urriaren 1ean eta egin dezatela txotx...eta kitto!-rekin batera”.



Beste martxa bat herriko mugikortasunari

Mugikortasunaren Europako Astea da honakoa eta, horren harira, Eibarko Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, egitarau berezia antolatu du. Ibilaldi osasuntsuak egin dira, bigarren eskuko bizikleten azoka, Nordic Walking bataioa, eta atzo bizikleta elektrikoan inguruko hitzaldia eskaini behar zuten.

Azkenean, jende gutxik eman zue-
nez izena, bertan behera laga zuten
eguazteneko hitzaldia, baina bizi-
kleta elektrikoan erabilera hazten
doala ikusita, Klub Deportiboko Txirrindu-
laritza Taldeko Galder Lasuenekin egin dugu
berba, hitzaldian esan behar zituenak aipatu
eta gaiaren inguruan zalantzak argitzeko.

Bizikleta elektrikoek zertarako balio dute?
Nolako onurak dituzte? Nola funtzionatzen
dute? Edonork erabili ditzake? Lasuenekin
berba egin dugu hori guztiaren inguruan.

Mugikortasuna eta kirola

Lasuenen ustez bizikleta elektrikoak, “ondo
erabiliz gero”, aukera onak dira Eibarren mu-
gitzeko eta kirola egiteko. “Aldapak igotzea
kostatzen zaion jendeari laguntza ematen
die eta, horrela, ate bat irekitzen die orain
arte bizikletan ibiltzea kostatzen zitzaien
pertsonei”, diosku.

Oinez ibili nahi ez eta autoa erabili nahi ez
dutenentzat, adibidez, bizikleta elektrikoak
erabiltzea aproposa ikusten du Lasuenek.
“Eibar aldapaz beteriko herria izanik, horre-

lako bizikletek demaseko erabilgarritasuna
izan dezakete. Eta horrek autoen erabilera
gutxitzen badu, denontzat hobe”, bere iritziz.

Kirolari dagokionean ere, bizikleta elektriko-
koek bat baino gehiago kirola egitera bultzatu
dutela dio Lasuenek. “Lehen, batzuk ez ziren
bizikletan ibiltzen ez zutelako gaitasunik edo
lagata zutelako, baina orain ikusten dute
bizikleta hauekin batera edo bestera joan
daitezkeela eta, horrela, kirol gehiago egiten
dute, horrek dakartzan onurekin”, esan digu.
“Ondo erabiltzen bada, bizitasuna ematen
du. Jendea oso pozik ikusi dut horrelako bi-
zikletekin gora eta behera, bestela bizikleta
arruntekin ezin zirelako ibili”.

Pedalei eragin behar zaie

Mota askotako bizikleta elektrikoak daude
(paseokoak, mendikoak, errepidekoak...) eta
bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Dena
dela, kontua da bizikleta elektrikoek bultza-
da ematen dutela. “Baina ez dira Mobylette
bezalako ziklomotorrak”, Lasuenek dioenez,
“pedalei eragin behar zaie”. Izan ere, bizikle-
ta hauek abiadura jakin batera arte ematen



Udalak bizikleta elektrikoak langileen eskura laga zuen orain dela hainbat urte mugikortasun jasagarria bultzatzeko.

dute laguntza (25 km/h). “Beraz, ordekan ibiltzeko ez da hainbeste igartzen bizikletak ematen duen laguntza, baina aldapetan bai”, esan digunez.

Bizikleta batzuek hiru martxa dituzte, beste batzuek bost, eta behar duzun indarraren arabera martxa bat edo beste ematen zaio bizikletari. “Adibidez, martxa bat sartzen duzu indarra hartzeko eta, hala ere justu bazabiltza, beste bat igo dezakezu, eta horrela”, azaldu digu Lasuenek. Baina ondo jakin behar da bizikleta nola erabili, bateria amaitu egin daitekeelako. “Garrantzitsua da bateria ondo erregulatzen jakitea. Hau da, zenbat denbora erabili eta zenbat potentziarekin. Horregatik, adibidez, aldapetan motorra aktibatu daiteke, baina ordeka edo aldapa behera heltzen denean itzali, aurrezteko”, zehazten du.

Entxufe arrunta

Bizikleta elektrikoek bizikleta arruntek baino dezente gehiago pisatzen dute eta etxetik urrun bateria gabe geldituz gero, etxerako buelta ez da nolanhikoa izaten. Gero, bateria

>>> “Ondo erabiliz gero, bizikleta elektrikoak aukera onak dira Eibarren mugitzeko eta kirola egiteko”

>>> “Jendea oso pozik ikusi dut horrelako bizikletekin gora eta behera, bestela bizikleta arruntekin ezin zirelako ibili”

berriz kargatzeko ez da ezer berezirik behar. “Entxufe normala du, ez da auto elektrikoek bezalakoa”, diosku Lasuenek.

Bizikleta arruntekin gertatzen den bezala, gaur egun eskari handia dago eta zaila izaten ari da elektriko bat erostea; baina, arazo hori konponduz gero eta azken aldiko joera ikusita, gure inguruan bizikleta elektriko gehiago ikusiko ditugula pentsa genezake.

“Guk islatu nahi dugunaren arabera hasten gara gaiak zehazten”

ANE EZENARRO BERISTAIN • Bertso gai-jartzailea



Domekan hasiko da Bertsolaritza Txapelketa Nagusia eta abenduaren 18an jakingo dugu nork jantzen duen txapela Iruñeko Nafarroa Arenan. Azken edizioetan jarraipen handia izan du txapelketak eta belaunaldi berriak bertsolaritzara berriz hurbildu ondoren, aurrean ere antzeko zerbeit bizi dugula dirudi.

Eibarren jaio eta Getarian bizi den Ane Ezenarro Beristain gai-jartzaile ibiliko da Bertsolaritza Txapelketa Nagusian. Ezenarro eta lankideak buru-belarri dabilta lanean bertsolariek landuko dituzten gaiak zehazten, proposamenen atzean demaseko lana dagoelako.

Bost urte pasa dira azkenengo Bertsolaritza Txapelketa Nagusitik. Gogotsu edizio berri baten aurrean?

Bai, demaseko gogoia ikusten dut inguruan. Plazak berreskuratzearekin pixka bat asetu dugu bertsolaritza gose hori, baina Txapelketa Nagusia hasteko gogoz gaude.

Azken edizioetako finaletan, adibidez, BEC jendez lepo egon da, txapelketek demaseko jarraipena izan dute... Gero, pandemia iritsi zen, plazak hustu ziren eta berriz berreskuratzen ari dira. Gauzak aldatu egin direla uste duzu ala lehengo bidetik jarraituko dute?

Ez dakit zehazki zer gertatuko den, ez naiz horretan aditua, baina uste dut txapelketako giroa ez dela aldatuko.

Bost urte igarota, bertsolarien artean belaunaldi berria agertu da. Horrek aldaketak ekarri ditzake?

Bai. Aldaketa egon da bertsolarien artean eta baita gai-jartzaileen artean ere eta, ondorioz, horrek aldaketa ekarriko du.

Zuretzat lehen aldia da gai-jartzaile moduan Bertsolaritza Txapelketa Nagusian?

Bai. 2019an Gipuzkoako Txapelketan ibili nintzen eta orain lehen aldia dut Txapelketa Nagusian.

Imajinatzen dut ez dela gauza bera plazan edo bertsotari baten gai-jartzaile ibiltzea edo txapelketa handi batean, ezta?

Noski! Plazak eta txapelketak oso ezberdinak dira. Gero, Gipuzkoako Txapelketaren eta Txapelketa Nagusiaren artean ez dago hainbesteko alderik.

Plazak eta txapelketak ezberdinak izanda ere, osagarriak dira?

Plazak beharrezkoak dira trebatzeko eta behar den gorpuzkera hartzeko, batez ere gazteentzat.

Gai-jartzaileek nolako lanketa egin behar duzue gaiak zehazteko orduan?



“Plazak berreskuratzearekin pixka bat asetu dugu bertsolaritza gose hori, baina Txapelketa Nagusia beste zerbait da”

“Plazak beharrezkoak dira trebatzeko eta txapelketetarako behar den gorpuzkera hartzeko”

Txapelketa nagusian 14 lagun ari gara gai-jartzaile. Gure artean oso ezberdinak garen 14 lagun. Horrek ikuspuntu ezberdinak edukitzen laguntzen digu, zentzu guztietan, esparru ezberdinetako jendea garrelako. Orduan, zer saiatzen garen kontuan edukitzen? Adibidez, generoari begiratzen diogu eta ez ditugu orain dela 20 urte jartzen ziren gaiak jartzen. Euskara asko zaintzen dugu transmisioaren aldetik, kulturaren zainketaren aldetik eta baita gaiak formulatzeko orduan ere. Denbora asko pasatzen dugu horretan. Pentsa, atzo ordu erdi pasa genuen hiru lerroko gai bat txukuntzen! Gainera, oreka bati eusten saiatzen gara, gizarteko esparru ezberdinak adieraziz. Azken neurrian, bizitzako edozein esparrutan kontuan eduki beharko genituzkeen kontuak bertsotara eramatea da gauza.

Gaiak zehazterako orduan, gai zehatz batek bertsolarien luzimendurako balio duela edo beste batek gauzak zail jarriko dizkiela pentsatzen duzue, adibidez? Edo ez duzue horretan pentsatzen?

Gure asmoa ez da bertsolariak izorratzea. Eta bestetik, gai batek luzimendurako balioko dien horri erantzunez, guk ez dakigu bertsolari jakin bati zein gai egokituko zaion. Beraz, luzimenduarena zerbait erlatiboa eta subjektiboa da, eta ez ditugu gaiak horren arabera pentsatzen. Guk islatu nahi dugunaren arabera hasten gara gaiak zehazten.

Azaroaren 12an Durangon jokatu den finalerdian egongo zara gai-jartzaile, baina aipatu duzu talde-lana dela zuena. Nola funtzionatzen duzue?

Astero elkartzen gara, norberak proposatzen dituen gaiak etxean landuta eramaten ditu bileretara eta taldean filtroa pasatzen dugu. Gai batzuk aukeratzen ditugu eta beste batzuk ez, arrazoituz, eta onartuta ere, gai batzuk birformulatu egiten ditugu, beste batzuk beste ikuspuntu batzuetatik planteatzen ditugu... Azkenik, ontzat ematen ditugunean, poltsa batean sartzen ditugu eta gai horiekin saioak osatzen ditugu. Eta gero, saio horietan oreka egon dadila bilatzen dugu.

Badago lana atzetik!

Demaseko lan ikusezina dago. Orduak eta orduak pasa ditzakegu gaiak txukuntzen, zalantzak argitzen, formulazioa zehazten...

Aurtengo edizioan, Kartzelako Lana ariketaren izena aldatu eta Ganbarako Lana jarri diote. Ariketan ere aldaketak egongo dira?

Izena aldatuta ere, ariketa berdina izango da. Kartzela berbak duen konnotazio negatiboa kentzeko aldatu da izena, beste barik.

Eta saioetako beste ariketei dagokionez, aldaketak egongo dira?

Ez da ikaragarritzko aldaketarik egongo. Hori bai, lehenengo fasean eta finalean, puntu-erantzunetan gai bat emango diegu bertsolarietara aurretik (lehen ez zen ematen). Orduan, gai bat emango dugu abiapuntutzat eta gai horri buruzko hiru bertso egin beharko dituzte, hasierako puntua emanda. Gipuzkoako Txapelketan egin izan dugu aurretik, baina berrikuntza da Txapelketa Nagusia.

Gai-jartzaile zabilta, baina nola sartu zinen bertsolaritzaren munduan?

Gai-jartzaile peto-pettoa naiz, bertsolari frustratua, koplak bat botatzen ere zailtasunak dituen norbait. Inolako konplexu barik diot.

Bertso-eskoletan bertsoetan egiten erakusten den moduan, gai-jartzaileentzat ere badaude eskolak? Nola ikasten duzue?

Gai-jartzaile gehienak bertso-eskoletan trebatzen dira. Gipuzkoan, Eskolarteko Txapelketa prestatzeko, probintziako gai-jartzaile taldea sendotzeko errelebo txiki baten beharra ikusi zuten eta deialdia egin zuten. 2018ko Eskolarteko txapelketarako trebatu ginen eta 2019korako fitxatu egin gintuzten. Orduan, badugu nolabaiteko formakuntza eta gai-jartzaile bezala trebatu gara. Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile guztiak pasa gara herrialdeetako txapelketetatik. Bestetik, ez dago formakuntza arauturik. Idatzi gabeko lege asko dago, baina guk baino eskarmentu gehiago dutenen bitartez ikasi dugu.



Goian, txapelketaren aurkezpena. Behean, Maialen Lujanbio, azken txapeladuna.

“Bizitzako edozein esparrutan kontuan eduki beharko genituzkeen kontuak bertsoetara eramatea da gauza”

“Gai-jartzaile peto-pettoa naiz, bertsolari frustratua, koplak bat botatzen ere zailtasunak dituen norbait”

500 futbolari ditu Eibar FT-k bere harrobiko egituran

Eibar FT-ko oinarritzko futbola berriro martxan ipini den honetan, aurrekoan prentsaurrekoa eskaini zuten Cesar Palacios klubeko kirol-zuzendariak, Raul del Pozo oinarritzko futbolaren arduradunak eta Jordi Torres emakumezkoen futbolarenak. Klubak 300 jokalarari inguru aurkeztu zituen, 13 taldetan banatuta: bederatzi gizonetzkoenak eta lau emakumezkoenak. Horrez aparte, beste 80 lagun dira guztira Eibar FT-ren harrobiko sailen organigrama osatzen dutenak. Aurreko jokalariei Eibarko Futbol Eskolako beste 200 haur inguru gehitzen bazaizkie, 500 bat dira harrobiko partaidea.



Eibar FT-ren harrobiko taldeen aurkezpena aprobetxatuz egindako prentsaurrekoa.

Kanpaina berria abian

Aurten Ipuruan jokatzeko geratzen diren zazpi partiduetako abonatzeko kanpaina jarri du martxan klubak. Helduentzako prezioa 110 eurokoa izango da eta 50ekoa umeen kasuan. Prezio bereziko kanpaina horretan izena ematen dutenek lehenengo ekipoen parti-

duak ikusteaz gain, emakumezkoen lehen taldearenak eta Vitoria filialarenak ere ikusi ahal izango dituzte. Eibar FT-ko lehen bi taldeek domekan jokatuko dute asteburu honetako euren partidua, etxean gainera: emakumezkoenak Rayo hartuko du Unben 11:30ean eta gizonetzkoenak Racing Ipuruan 18:30ean.

Aitor Cano eibarzaleen taldea sortu dute

Orain dela urtebete hildako Aitor Cano Zubiaurren lagunek bere omenez sortutako eibarzaleen taldea aurkeztu zuten martitzenean Ipuruan. Aurrerantzean, beraz, Eibar foball taldearen partiduetan pankarta bat gehiago ipiniko dute zaletuek. Bere

aurpegiaren marrazkiaren aldamean, "Peña kanuto beti zurekin" mezua idatzi dute, Eibar taldearen banderan. Jende gehiagori ere zabalduko duten bera gogoratzeko taldean 30 lagunetik gora batu dira dagoneko.



Ipuruan aurkeztu zuten San Andres gozotegian jardundako Aitor Canoren aldeko peña.

Mecalbe Eibar Eskubaloiko talde nagusiek ligako 2. jardunaldiari ekingo diote

Datorren domeka goizean etxeko lehenengo partidua izango du gizonetzkoen taldeak, Ipuruan Loldisna San Antonio hartuta. Emakumezkoen taldeak, bestalde, 10 minutuko bidaia egin beharko dute, Elgoibarreraino, bertan lehenengo jardunaldian galtzaile ere izan zen Gaurve Asesores Elgoibar taldeari aurre egiteko. Aurreko asteburuan jokatuako lehen jardunaldian, Andoni Perezek zuzentzen duen emakumezkoen taldeak 20-31 galdu zuten Ipuruan Ideam La Jotaren aurka; Fernando Fernandezek zuzentzen duen gizonetzkoenak, bestalde, 24-29 irabazi zion Palautordera Salicuri Kataluniara egindako irteeran.

Eibar Igerixaneko Miren Galdos bigarren izan zen Flysch Beltzaren 8. edizioan

Zeharkaldi motzean, hiru kilometrokoan, eskuratu zuen bigarren postu hori Eibarko klubaren ordezkariak. Mutrikun hasten zen travesia horretan Naia Sarasola tolosarra helmugaratu zen aurretik, 42 minutu eta 39 segundoko denborarekin, eta Galdos hirugarrena izan zen Leaburuko Izaro Goñiri hiru segundo atera zizkion bakarrik. Distantzia berean Xabier Labaka bergarra izan zen onena gizonezkoetan, 40:47ko denborarekin, Villanueva de Ireguako Sergio Nieto eta Iñaki Burgoi donostiarren aurretik. Saturraranen hasi zen proba luzean, sei kilometro eta erdikoan, Astigarragako Luis Goñi (1:39:22) eta Saioa Martinez iruñarra (2:10:41) izan ziren onenak. Euren atzetik sailkatu ziren Ibarrrako Joseba Mateos eta Agustín



Miren Galdos, Eibar Igerixaneko jantziarekin, podiumeko bigarren tokian.

Ibarguren donostiarra gizezkoen artean eta Etxebarriko Jone Zulueta eta Arantza Garcia donostiarra emakumezkoetan.

Eibar Igerixan gure herriko klubak antolatzen duen Flysch Beltzak 8. edizioa bizi izan zuen aurten eta hainbat jatorritako parte-hartzaileak izan zituen (Madril, Valentzia, Errioxa edo Frantziatik etorritakoak tartean). Saturraraneetik 98 igerilari abiatu ziren eta proba laburragoan, Mutrikuko portutik, beste 127. Ohikoa baino gogorragoa izan zen proba eta, aurreko urteetakoarekin konparatuz, denborak ere

handiagoak izan ziren, “8-10 korapiloko haizearekin, sortutako haize-olatuek eta eguzkiak asko zaildu zutelako igerilarien lana”. Debako hondartzan kokatuta zegoen helmugan pintxoak, madalenak, edaria eta fruta izan zen guztientzat eta aurretik ere, proba luzearen erdialdean, igerilariak itsasontzia izan zuten zain, edari, fruta eta gelek indarberritzeko aukera eskainiz. Betiko lez, arrakastatsua izan zen probako antolatzaileek berau egiten jasotako laguntza guztia (“izan parte-hartzaile, laguntzaile, babesle, boluntario”) eskertu nahi izan dute.

Ehiza txikiko Dianako eta eskualdeko txapelketak jokatu dira



Bezperako saioan, zapatuan, Diana elkarteko 18 kidek hartu zuten parte Zambranako Senior mailan Iñigo Gisasola izan zen irabazle, zortzi eperrekin. Eta nagusietan Kiko nagusitu zen, bost eperrekin, Jose Luis Gisolaren aurretik. Hurrengo egunean, domekan, Debarreneko txapelketa jokatu zen, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Eibarko parte-hartzaileekin, Elgoibarko Egañatarrek nagusi izan ziren saioan. Seniorretan Arkaitz Egaña izan zen onena, bederatzi

eperrekin, eta berarekin sailkatu ziren Diana elkarteko Jose Luis Ferreira (seirekin), David Conde (bostekin) eta Dianako Iñigo Gisasola (lau eper eta galeper batekin). Nagusietan Jose Mari Egaña izan zen irabazle, bi eperrekin, eta bere atzetik sailkatu zen Jose Luis Gisasola eibartarra, batekin. Eta nesketan Leire Egaña irabazi zuen proba, bi eperrekin. Hiru lehenengoek urriaren 2an Zambranako jokatu den Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuten.

Palentziako Mendietarako irteera antolatu dute Deporrek mendi batzordekoek

Urriaren hasierarekin bat, lehenengo astebururako irteera antolatu dute Eibarko Klub Deportibokoek, Elgoibarko Morkaiko mendizale elkartearekin batera. Oraingoan Palentziako Mendietara joango dira. Urriaren leian, zapatuan, Puerto de San Gloriotik Cardaño de Arrigarako bidea egingo dute, tartean 2.539 metroko Peña Prietatik pasatuta: “7-8 bat orduko ibilbidean 1.150 metroko gorako desnibela gaindituko dugu, guztira 18 kilometro egingez”. Hurrengo egunean, domekan, 2.451 metroko Espiguete igoko dute “ekialdeko ertzetik, jaitsiera Ipa-

rraldeko Arrailetik egiteko”; egun horretan 13 kilometroko distantzia osotuko dute, “sei bat ordutan 1.150 metroko desnibela gainditzeko”.

Alojamendua Triollon dagoen Curavacas aterpetxean hartuko dute eta derrigorrezkoa da federatuta egotea. “Baita burua babesteko kasakoa eramatea ere”, antolatzaileek diotenez. Zapatu goizean abiatuko den irteera horretarako 25 plazako muga dago, eta izena ematerakoan 50 euroko fidantza ordaindu behar da: prezio horretan autobusa eta aterpeko afaria, gosaria eta gaua pasatzea sartzen dira.



Aitziber Urkiola Santanderreko Triatloi Olinpikoko podiumean

Aurreko asteburuan Kantabriako hiriburuan jokatuako Triatloi Olinpikoa parte hartu zuten artean Urkiola izan zen JAZ Eibar Triatloiko ordezkari bakarra. Maila handiko triatletak hartzen dute parte proba horretan, baina eibartarrak podiumean tokia izatea lortu zuen. Uretatik irtetzerakoan hirugarrena bazen, bizikleta gaineko tartea laugarren postuan amaitu zuen, “hirugarrenarengandik minutu pare batera”. Hala ere, indartsu zegoela erakutsiz, oinez egindako azken 10 kilometrotan postu bat irabazi eta hirugarren amaitzeko gauza izan zen.

Pello Osoro garailu berriro

Bestalde, Portugaleteko Alusigma Peñota Dental taldearekin parte hartzen duen gure herriko goi mailako triatloilariak Nutrisport Half Triatlon de Sevilla by Zone3 probaren 9. edizioa bereganatu zuen, 3:56:26ko denborarekin. Amaitzeko ia lau ordu behar izan zituen proban ia bi kilometro egin zituen igerian, 92 bizikleta gainean eta maratoi erdia antxintxiketan.



Lemmens, Ghiorzi, Copeland eta Khumalo Eibar Rugby Taldea indartzera etorri dira

Hirugarren urtez jarraian Ohorezko Mailan jokatuako duen Eibar Rugbyko emakumezkoen taldeak lau fitxaketa egin ditu, taldeak mailari modu onenean erantzun diezaion. Marit Lemmens medimelea Herbehereetatik dator, Paula Agustina Ghiorzi Argentinatik, irekiera-postuan jokatzeko duen Cheyne Copeland Zeelanda Berritik eta Patricia Zandile Khumalo aurrelaria Hego Afrikatik. Laurek esperientzia dute nazioarte mailan.



IÑAKI ZIARRUSTA • ATX Teatroa taldeko kidea



Euskal Herrian eta euskaraz lan egiten duen konpainia da Bilboko ATX Teatroa.



“Belaunaldien arteko talka dago lanaren erdigunean”

“Lubaki lainotsua” antzezlanaren taularatuko du ATX Teatroak gaur, barixakua, Coliseo antzokian, 20:30etik aurrera (euskaraz). Taldearen 10. proiektua den lan honetan Maren Basterretxea, Miriam K. Marchante eta Javier Barandiaran antzezleek hartuko dute parte. Azken bi hauek, nahiz eta kanpoan bizi, Eibarren jaioak dira. Konpainiaren alma materra den Iñaki Ziarrustak eman digu lanaren berri.



ATX Teatroa sortu zuen Iñaki Ziarrustak 2010ean.

“Lubaki lainotsua”k belaunaldien arteko talka du oinarri moduan. Zergatik aukeratu duzue gai hori?

Nire semea eta bion arteko harremanetik dator gai hau lantzearen ideia. Uste nuen aita modernoa eta irekia nintzela eta oso ondo konpontzen gara, baina gauza batzuk ezin ditut ulertu. Nerabearoan sartzen direnean guraso askori gertatzen zaigun zerbait da. Nire burua edade batekin ikusten dut eta alde

narabitzen dut gazteekin. Gauzak aldatzen doaz, batzuk onerako, beste batzuk txarrerako. Hala ere, horri esker doa mundua aurrera. Horrez gain, uste dut “deskoloke” momentu batean bizi garela. Gauzak oso azkar pasatzen ari dira; esate baterako, erabaki politikoak egun batetik bestera aldatzen dituzte, eta indibidualki oso zaila da hori guztia asimilatzea.

Lubaki batean sartuta bizi da pertsonaietako bat...

Belaunaldien arteko talka horretaz berba egiteko muturretara joan gara. Izenik gabeko gerraren lubaki batean soldadu beterano bat dago, bakar bakarrik, beste sasoi bateko gerralaria. Bat-batean, zorioneko (edo zoritxarreko) egun batean, soldaduaren mundua hankaz gora jarriko duen gutuna ailegatzen zaio postari gazte baten eskutik. Gutun horrek bakoitzaren onena eta txarreana azaleratuko du: maitasuna, heriotza, beldurrak, gupida, gorrotoa, frustrazioak...

Mutur bi, beraz, mundua hobeto ezagutzeko.

Antzerkigileek esaten dugun moduan, guk ez dugu konponbiderik ematen, “putada” bat egiten diegu ikusleei, hausnarketetan oinarritutako galdera eta konfliktu pila bat jartzen ditugulako mahai gainean. Bakoitzak bere motxilararen arabera, bere eskarmentuaren arabera ikusten du antzerki-ikusketak.

Zeintzuk dira zuen lan-ildoak?

ATX Teatroa Bilboko konpainia bat da, 2010ean sortua, Hala ere, 30 urte daramatzagu antzerki munduan. Gure lan-ildoak distopia eta antiestetikaren aldetik joaten da. Saiatzen gara alfombra azpian gordeta ditugun gauza ilun eta zikin horiek argira ateratzen.



Fran Sieiraren “DeMente” dantza ikuskizuna zapatuan

Bihar aurkeztuko du Fran Sieira Galiziako taldeak “DeMente” ikuskizuna, 20:30ean Coliseo antzokian. Buruko gaixotasunak normalizatzearen garrantziaz kontzientziatu nahi duen lana da eta dantza konpainiak errealitate bat, estigma bat, patologia batzuk irudikatuko ditu, “lau pertsonatik batek inoiz sufritu dituenak, sufritzen diharduenak edo bere bizitzako uneren batean sufrituko dituenak”. Koreografia Francisco Agustín Sieira Gonzálezena da, zuzendari artistikoa Carla Diego Luque da, eta musika Cristian Silva Bóvedak egin du. Sarrerak 5 euro balio ditu.



“Itzalpean” erakusketa

Gaur 18:30ean zabalduko dute “Itzalpean” (“Espectro de oscuridad”) izeneko erakusketa Portalean. Basoa etengabe suntsitzea eta uraren pribatizazioa eta eskasia dira Pilar Soberónen erakusketa honen ardatza. Gizateriak naturarekin duen harremana biltzen duen arazo larriari buruzko gogoeta egiten du erakusketak instalazioen, bideoen, eskulturen eta argazkien bidez. Urriaren 23ra arte egongo da ikusteko moduan, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Bestalde, artistak bisita gidatua egingo du eguaztenean, irailaren 28an, 19:00etan.



Bertso saio musikatua datorren barixaku gauean

Hankamotzak bertso-eskolak Udalaren laguntzaz antolatutako saioan, Txaltxa Zelaiko auditorioak bertso-laritz eta musika uztartzen dituen jaialdia hartuko du aurten ere (euria egiten badu, Errebal Plazan ospatuko da). Datorren barixakuan 22:00etan hasiko da bertso saio musikatua, Maialen Akizu, Miren Artetxe, Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia bertsolariekin, Maialen Bergara gai-jartzaile dutela. Musikariak, berriz, Gari Otamendi eta Ixak Arruti izango dira.

Argazki erakusketa egin nahi dutenentzat eskaintza

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak Eibarren erakusketa ipini nahi dutenentzat gonbidapen zabala egin du. Interesa duenak argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi dezake eta, nahi izanez gero, argazki batzuk (erresoluzio txikian), testuren bat edo curriculumarekin ere bidali daitezke. Erakusketak 28 edo 10 argazkikoak izan daitezke (ipiniko den tokiaren arabera) eta neurriak egilearen aukerakoak. Deporreko argazkilariak arduratuko dira kalitate handiko kartela eta zabalkundea egiteaz.

Musika Bandaren kontzertua



Eibarko Musika Bandak kurtso berriko lehen kontzertua emango du gaur, 20:00etan, Toribio Etxebarria kalean (euria eginez gero, Errebal Plazan egingo da). Emanaldian Michael Jackson, Bee Gees, Gloria Steffan, Santana eta beste musikari ezagun batzuen abestiak joko dituzte.



Tiro batekin bi txori hegan. RAMONBEITIA

**Oswaldo
Gabilondo Iñarrairaegui**

4. URTEURRENA
2018/09/27




*"Arrateko Amak handik
lagundu gaitzala egun
batean Zeru berberak
hemen etxe berak bildu
gintuenok han ere batzera"*



**Julian
Moro Gil**

3. URTEURRENA
2019/09/25

*"Beti izango zara
gure bihotzetan"*



- ZURE FAMILIA -



**Jon Gorosabel
Foruria**

4. URTEURRENA
2018/09/22



**Iñaki Azpiri
Arrillaga "KAPURRO"**

2. URTEURRENA
2020/09/23



"Betirako gure bihotzetan maite izango zaituztegu"

- ETXEKOAK -



688 62 76 89
ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK
943 20 09 18

Urkuzu, 11 - 48940
publizitatea@etakitto.eus

**Oier
Areitio Blasco**

3. URTEURRENA
2019/09/23

*"Beti zaude
gure bihotzetan"*



MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		8	2	6			5	
	4				5	1		
	6				4		8	
				1	6			
	5	2					9	1
			8	5				
	1		5					3
		4	7					6
	9			4	1	8		

A	B	C	D	E	F	G	H	I
1	9	8	7	6	5	4	3	2
2	8	7	6	5	4	3	2	1
3	7	6	5	4	3	2	1	9
4	6	5	4	3	2	1	8	7
5	5	4	3	2	1	9	8	7
6	4	3	2	1	9	8	7	6
7	3	2	1	9	8	7	6	5
8	2	1	9	8	7	6	5	4
9	1	9	8	7	6	5	4	3

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			1	7				
2		9	1	3		6		
6			4				5	
9	2						3	
	5						7	
	1					5		2
	2				6			4
		3		7	4	2		8
					2	3		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



Irailak 23/29

BARIXAKUA 23

MUSIKA

20:00 Elbarko Musika Banda. Toribio Etxebarria.



ANTZERKIA

20:30 "Lubaki lainotsua" (Atx Teatroa). Coliseo.



ZAPATUA 24

MUGIKORTASUN ASTEA

10:30/14:00 eta 16:00/20:00 "Prest jarri zure bizikleta" furgoneta-tailerra. Untzaga.

BIEN APARECIDA JAIK

12:00/14:00 Kantabriako produktu tipikoen dastaketa, Ipuruako bolatokian eta Jardineñetako tabernan.
16:30 Igel eta toka jokoak, Ipuruako bolatokian.

21:00 Afaria. Ipuruako bolatokian.

DANTZA

20:30 "Demente" (Fran Sieira dantza konpainia). Coliseo.



DOMEKA 25

ASTEKLIMA

09:00 "Altxorraren bila naturan" ginkana. Urko mendian, Untzagatik abiatuta.

MARTITZENA 27

ASTEKLIMA

18:00 HHitzaldia: "La energía del futuro y el cambio climático", German Albistegui Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolako



irakaslearen eskutik. Portalea (areto nagusia).

EGUAZTENA 28

ASTEKLIMA

18:00 "Eibarko Ekintza Plana Klima eta Energia Jasangarrirako", herritarren partaidetzarako tailerra. Portalea (A bilera-gela).

EGUENA 29

ASTEKLIMA

18:00 "Niararen bidia" umeendako antzezlan. Coliseo.



AGINAGAKO JAIK

18:00 San Miguel eguna ospatzeko kanpai iraulketa eta suziriak. Aginaga auzoa.



ERAKUSKETAK

Domekara arte:

- "EIBAR BERDEZKURATU". (Untzagako Jubilatatu Etxea).

Urriaren 23ra arte:

- **PILAR SOBERON-en "Itzalpean - Espectro de oscuridad"**. (Portaleaa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

23an (barixakua) / 20:30 Ermua Antzokia "El premio". La Quintana konpainia. Sarrera: 10 euro.

DEBA

EUSKAL JAIA

23an (barixakua)
17:30: Euskal Makarroi Lehiaketa
19:30: Kalean Kantuz
24an (zapatua)
10:30: Txistularien kalejira
11:30: Zubietako joaldunak
12:30: Dantzarien saioak
14:30: Marmitako lehiaketa
15:00: Herri-bazkaria
19:30: Orkestra Elektrotzaranga
23:30: Mugi Panderoa

ELGOIBAR

KONTZERTUA

23an (barixakua) / 23:00 Kultur Etxeko sotoa Sotoko Hotsak.

ERRALDOI ETA BURUHANDIAK

24an (zapatua) / 12:30 Kalebarren kaletik hasita **SAN MIGUEL JAIK**
24an (zapatua)

13:00: Umeentzako jolasak
14:00: Umeen bazkaria
18:00: Bolo-txapelketa
21:00: Afaria

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **24an:** 22:30
- **25ean:** 20:00
- **26an:** 20:30

“La vida padre”

Zuzendaria: Joaquin Mazón



2 ARETOA

- **24an:** 19:45, 22:30
- **25ean:** 17:00, 20:00
- **26an:** 20:30

“Ali & Ava”

Zuzendaria: Clic Barnard



ANTZOKIA

- **24an:** 17:00⁽¹⁾, 19:45⁽¹⁾
- **25ean:** 17:00^(1 aretoa), 20:00
- **26an:** 20:30

“Viaje al Paraíso”

Zuzendaria: Old Parker



ANTZOKIA

- **24an:** 17:00 (2 aretoa)
- **25ean:** 17:00

“Un héroe samurai”

Zuzendaria: Mark Kleisler



LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

aeK euskara praktikatzen

EUSKARA
IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Eibarko AEK euskaltegia
2022/2023 EUSKARA IKASTAROAK
MAILA GUZTIAK A1, A2, B1, B2, C1, C2
Azerketako ofizialak prestatzeko aukera
16 urteko garakoen bitartekoa
Matrikula ZABAIKO irakurleekin 30era arte
Sestao kalea 1.º solairuan - 943 20 13 79 - eibar@aeK.eus

DIRULAGUNTZAK/BEKAK

EIBARKO UDAMA FASE

FUNEUSKADI
Grupo Euzkadi

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ERREATORIO
ERREATORIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Elgoibar: Xivilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaola hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ernuako bulegoa: Marqués de Valdepeña, 16

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak!!, **KEPA**, hillaren 8xan 5 urte egin zenduazelako. Besarkada haundi bat!! Amama Edurnek era aittitta Josuk.



Zorionak, **JONE**, eguaztenian 11urte bete zenduazzen-eta. Musu haundi bat etxeko guztion partez



Zorionak, **MALEN**, hillaren 20xan 7 urte bete zenduazzen-eta. Musu bat asko maitte zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IKER**, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Askok maite zaittugu!



Zorionak, **IRENE!!** Martitzenian 4 urte bete zenduazzen-eta. Askok maite zaittugu!



Zorionak, **NOA** Lopez, hillaren 26xan 9 urte beteko dozuzelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Luka, Danel eta Aner-en partez.



Zorionak, **AMETS**, mutil haundi, atzo 3 urte bete zenduazzen-eta. Besarkada haundi bat Alaia, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **LUKE**, polittori! Eguenian 8 urte egin zenduazzen-eta! Musu erraldoi bat infinito maite zaittugun guztion partez!



Zorionak, **JUNE**, hillaren 28xan 5 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **PAULE** eta **MARTINA**, bixar 3 urte beteko dozuez-eta. Musu haundi bana etxeko guztion partetik.



Zorionak, **EVA** eta **NOAH**, gure "fierecillak" domekan 5 urte beteko dabezelako. Etxekuen partez.



Zorionak, **LUKEN**, eguaztenian 11 urte! bete zenduazelako. Musu bat Eibartik amama-aitxitxen, izeko-osaben eta Ander eta Jon lehengusuen partez. Eta baita, jakiña, **LIBE**ren partez.

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Bikoteak etxebizitza hartuko luke alokairuan. Erreferentziak. 667060292.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lursail/terreno baten bila nabilerosteko Eibarren edo ingururuan. 669141127. Ibon.

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai. 132 m². Etxebizitzarik gabeko eraikinean. Segurtasun-peretsianarekin. 656756485.

- Eibarren lokala alokatzen da. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin). 634430647..

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. 643265561.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Externa. 612297642.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 627145985.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta pegorak garbitzeko. 8 urtetako esperientzia. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxe-lanak egiteko. Externa edo asteburuetan interna. 634889278.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko eta jendea zaintzeko. Orduka. 602051567. Selma.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (sozio-sanitario tituluarekin). Orduka eta baita gauzez ere. 631425686.
- Erizaina eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624153040.
- Mutila eskaintzen lana egiteko: eraikuntzan, tabernetan, garbiketarako, nagusiak zaintzen... 643036859.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, kamarera moduan eta nagusiak zaintzeko. 641849936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 624131378.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) gauzez. Externa. 612461503.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 622023451.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta informeak. 722408667.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta informeak. 689003537.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. EGA tituluarekin. 610324903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Orduka. 664109570.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 654210024..

4.2. Langile bila

- Higienista bukodentala behar da hortz klinika batean. Bidali curriculum: hortzklina.06@gmail.com
- Elgoibarko mekanizazio-enpresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Lan-kontratu mugagabea eskaintzen da.

- email: angel@swisslan.es
- Pertsona behar da taberna batean lan egiteko. 695690784.
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum: Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimikako eskola partikularrak ematen dizkiet LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestaketarako ikasleei. Gehienez lau lagun. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Edozein arlo. 615708043.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- LHko klase partikularrak ematen dira. 640019325. Nerea.
- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Bi aulki elektriko salgai. Egoera oso onean. 660917919.
- Eibar BHko DBH3. mailako liburuak salgai. 615712216.
- Yamaha PSR E223 pianoa salgai. 80 euro. 669208763.



ASTEKLIMA 2022

Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

Irailaren
23tik
urriaren
2ra
www.asteklimatea.eus

GINKANA "Aitxorraren bila naturan"

Irailak 25 / Untzaga (harmailak) / 09:00

Arrastoien biaketa Urko mendia magaleko ingurune naturalean. Familiari zuzendutako jardura (6 urteik sumera).
Zaifatasuna: ertaina, 7,5 km. EUSKARAZ.

PLAZA MUGATUAK (gehienez 30 talde, 8 pertsona talde bakoitzeko) **Izena emateko: Irailaren 22ra arte (barne)**

HITZALDIA "La energía del futuro y el cambio climático"

Irailak 27 / Portalea / 18:00 / 75 min

Trantsizio energetikoari, aldaketa klimatikoari eta etorkizuneko eszenarioari buruzko hitzaldia. GAZTELANAZ.

Izena emateko epea: Irailaren 27ra arte (barne)

TAILER parte-hartzailea Eibarko Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planari buruz

Irailak 28 / Portalea / 18:00 / 60 min

KEJEP egiteko herriaren parte-hartze jardunaldia. Zer neurri har ditzakegu larrialdi klimatikoari aurre egiteko? ELEBIDUN.

Izena emateko epea: Irailaren 26ra arte (barne)

ANTZERKIA "Niararen bidaiak"

Irailak 29 / Coliseo / 18:00 / 90 min

Gizakia naturarekin erlazionatzeko moduari eta oreka lortzeko premiarri buruzko haurrentzako ikuskizuna. EUSKARAZ.

Ikusleak: 3 - 7 urte

Sarrerak doan Coliseoan edo Kutxabank-en



BASQUE GREEN DEAL

EDINBESTEKOA DA ZURE PLAZAREN
BAREZTAPENA POSTA
ELEKTRONIKOZ JASOTZEA

INFORMAZIO GEHIAGO:
ingurumena@eibar.eus
943 70 84 08

IZEN-EMATEAK



<https://formularioak.eibar.eus/leu/asteklimatea>

"BERRERABILI ETA BERRASMATU" TAILERRAK

NOLA LAGINDU DEZAKEGU SORTZEN DITUGUN HORDAKINAK MURRIZTEN?

Plaza mugatuak

ingurumena@eibar.eus
Tel. 943 70 84 08



IKASI erreminta zein teknika ezberdinekin objektuak KONPONTZEN eta gauza zein materialei BESTE BIZITZA BAT EMATEN.


IZEN-EMATEAK
bi txandatan banatuko dira:

1. Txandako tailerrak: **irailak 26 - urriak 9**
2. Txandako tailerrak: **urriak 24 - azaroak 6**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia,
Periodontzia, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgia.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com